

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

Gasteiz hiriko berdeguneak —ingurumena errespetatzen duten jardunbideekin— onik zaintzeko lanak kontratatzeko lehiaketa (2017-2020 aldia)

2016ko irailaren 30ean onetsi zen 2016/CONASP0354 kontratazio-dosierra, Gasteiz hiriko berdeguneak —ingurumena errespetatzen duten jardunbideekin— onik zaintzeko lanak (2017-2020 aldia) esleitzeko.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.

a) Erakundea: Gasteizko Udala.

b) Dosierria izapidetzen ari dena: Ingurumena eta Espazio Publikoa.

c) Dosier-zenbakia: 2016/CONASP0354.

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: Gasteiz hiriko berdeguneak —ingurumena errespetatzen duten jardunbideekin— onik zaintzeko lanak (2017-2020 aldia).

b) Kontratu-mota: zerbitzuak.

c) CPV kodea: 1. multzoa: 77311000-3 (lorategi eta parkeak mantentzeko zerbitzuak), 2. multzoa: 90920000-2 (instalazioak higienizatzeko zerbitzuak).

d) Multzoen banaketa:

1. multzoa: hiriko berdeguneak mantentzea, urtean 2.933.174,33 euroko prezioan, BEZa aparte, eta lau urteko gauzatzeko epearekin.

2. multzoa: ura duten elementuak garbitu eta desinfektatzea, urtean 142.472,64 euroko prezioan, BEZa aparte, eta lau urteko gauzatzeko epearekin.

e) Aldaerak onartzea: ez da bidezko.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: bai.

d) Gauzatzeko epea: kontratuaren iraupena lau (4) urtekoa izango da, gauzatzen hasten denetik. Hilabeteko epean formalizatuko da kontratua, ebazpena jakinarazten denetik kontatuta.

e) Luzapena: hilabetez hilabete nahiz urte urte luzatu ahal izango da kontratua, gehienez bi (2) urtez. Bi aldeak ados daudelarik egingo da luzapena, kontratazio-organoak onesten duelarik. Kontratua iraungiz gero, kontratista behartuta egongo da kontratua gauzatzen jarraitzera beste sei hilabetez edo kontratu berria formalizatu arte.

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

Aurrekontua: 1. multzoa: 2.933.174,33 euro urtean, BEZa aparte; 2. multzoa: 142.472,64 euro urtean, BEZa aparte. Kontratuaren kostu balioetsia: 1. multzoa, 18.173.948,14 euro; 2. multzoa, 870.792,76 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:

a) Behin-behineko bermea: 1. multzoaren behin-behineko bermea: 87.995,23 euro. 2. multzoaren behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren ehuneko 5, BEZa aintzat hartu gabe.

c) Berme osagarria: ez da eskatzen.

d) Ordaintzeko era: ikus administrazio-baldintzen agiriaren azaleko 12. puntua.

e) Balioespen-irizpideak: administrazio-baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

f) Saillkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): aukerakoa bi multzoetarako: 1. multzoa: O taldea, 6. azpitaldea, D kategoria (5, 773/2015 EDaren arabera); 2. multzoa: M taldea, 1. azpitaldea, B kategoria (2, 773/2015 EDaren arabera).

g) Kaudimen teknika: ikus administrazio-baldintzen agiriaren azaleko 10. puntua.

h) Kaudimen ekonomikoa: ikus administrazio-baldintzen agiriaren azaleko 10. puntua.

i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ikus administrazio-baldintzen agiriaren azaleko 18. puntua.

j) Langileak subrogatzea: ez da bidezko; ikus administrazio-baldintzen agiriaren azaleko 24. puntua.

6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda — San Antonio kalea, 16; 01005 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945 140678—, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era nahiz 16:00etatik 19:30era bitartean.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosierra aztertzea:

Ogasun Saileko Erosketetarako eta Kontratazioan Laguntzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea, 01008 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161616, faxa: 945 161780—, iragarkia EBAOn edo ALHAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

7. Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: 2016ko abenduaren 7a. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira — Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax-zenbakira (Erregistro Nagusia) igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio-baldintzen agiria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea, 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

e) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 6 hilabete.

f) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala — dokumentazio administratiboa— jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala — formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen-irizpideak balioesteko dokumentazio teknikoa— jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala — eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu behar diren balioespen-irizpideak (prezioa izan ezik) aplikatzeko dokumentazio teknikoa— jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

g) Bestelako informazioa: kontratu honetarako lehiaketa berri hau Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren ondorioa da; izan ere, kontratuan aintzat hartuko den baldintza teknikoen agiria aldatu zen erabaki horren bitartez, eta eskaintza aurkezteko epe berria ireki zen, horrenbestez. Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarraren 2016ko urriaren 28ko erabakiaren edukia eta baldintza teknikoen agiri berria, erabakitako aldakuntzak barne direla, Gasteizko Udalaren kontratatzailearen profilean dituzte eskuragarri interesdunek.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 28an

Erosketetarako eta Kontratazioan Laguntzeko Zerbitzuko burua
MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES